



Soraluze Integratzaile

Urte berri on, urte guztirako!. Pil-Pilean ihazko azken alean Maite Narbaizaren "Ezberdintasunak aberasten gaitu" artikuluekin bat nator, eta ildo beretik jarraituz zerbait gehitu nahi nuke.

Hain errez ikusten ditugun desberdintasunak aukera ezin hobe baten aurrean jartzen gaitu. Japoniarrek dioten bezala, akats bat altxor bat da. Ez gauzak oker egitea gustatzen zaielako, akatsaren zergatia aurkitu eta gehiago gerta ez dadin neurriak ezartzeko aukera ematen duelako. Ikasteko, beraz.

Hogeitapiku urtetan Gipuzkoan herririk herri kazetari dabilen lagun batek esan zidan bezala, Soraluzen ezaugarria gure lurraldeko herririk integratzaileena izatea da. Bere esperientzian oinarrituta esan zidan kanpotik datorrena beste herrietan baino errazago heltzen dela eroso sentitzera Soraluzen. Zorionak Soraluzen bizi garan guztiori. Arrasaten lana, Legazpian kasta, eta herri bakoitzean ezaugarri bat ateratzen dela dio besteen gaineratik. Bere kanpo lanean muestra zabalak hartzen ditu herriaren ezaugarri berezi baten bila.

ARAZOAREKIN TINKO ETA PERTSONAREKIN ESKUZABAL JARDUTEAREN ALDE NATOR

Saia gaitezen kazetariaren iritzi hori egi bihurtzen edota mantentzen, hau da nire gonbidapena. Ez dakigu lortuko dugun, baina hori gauzatzeko baldintzak/osagarriak jarri ditzakegu. Bakoitzaren esku dugu etikarik zabalenez jokatzera, ezinezkoa baita geure interesetara etika moldatzea, ez du balio bakoitzak bere etika asmatzea. Arazoa eta pertsona bereiztu behar ditugu, desberdinak dira eta. Arazoarekin tinko eta pertsonarekin eskuzabal jardutearen alde nator.

Zabaldu dezagun gure desberdinekin komunikazioa. Horretarako tresnarik onena errespetuz entzutea dugulakoan nago. Bereiztu behar genituzke gure iritziak besterik ez direnak egi borobilengandik. Umiltasuna gehitzeko gai bagina, bide erdi. Gure hitzetatik ez dugu ia ezer ikasiko; agian bai ordea besteengandik. Besteari hitza zapaltzeko jorerari eutsi beharko diogu eta esateko daukana hamaitzen laga. Biok/guztiok irabazi dezakegu eta merezi duela iruditzen zait.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefonia 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Arianne Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla

Publizitatea: Ane Larreategi

Logotipoa: Jon Gabilondo

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Diseinua eta maketazioa: KOH diseinu grafikoa

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariaren esan eta iritzien erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ERREPORTAIA

Urtarrilaren 4ean egindako Udal Batzarrean onartu ziren 2007rako aurrekontuak, 4.229.350,72 eurokoak. Alderdi bakoitzak bere iritzia eman zuen, eta berrikuntzak eta gabeziak azaldu zituzten.

Zorion agurrak



Ione Garai

Urtarrilan 20xan

19 urte

Zorionaketa ondo pasau!!

Iratxeren partez



Hodei Valdevieso Argarate

Urtarrilan 9xan

3 urte

Ondo pasa eta segi horrelakoa izaten Etxekoan partez



Imanol Agirre

Urtarrilan 20xan

3 urte

Zorionak polit hori!

Segi beti bezain alai eta kantari.

Etxekuan partez



Iker de los Santos Pérez

Urtarrilan 2xan jaixotakua

"Ongi etorri pitxin!

Debarreneko

lehenengoa!Ondo-ondo

zainduko zaittu Iraiak. Muxu

bat familiaren partez.

Gutunak

Negoiazioaren beharra

Urtea bukatzeaz zegoela, ETAK Madrilen jarritako lehegaiak, hildakoez gain, itxaropenak lehertu zituen. Zabalasteko galanta jaso genuen bake prozesuan itxaropena jarrita genuen hainbat eta hainbat herritarrok.

Gertakizun tamalgarri horiek pasa eta egun batzuetara, asko izan dira suetenari buruz barraiatu diren iritziak. Batzuek zein besteak, gertatutakoa justifikatu beharrean ari dira. Txarrenean, sortutako bake itxaropenak luzerako pikutara joan direla esaten dutenek, lerro hauek idaztera bultzatu bainaute.

Batasunakotzat jotzen dut nire burua, eta gertaeren aurrean galdera hauek datozkit burura: zer zegoen hitzartuta?, Nork zapuztu ditu gizarteak prozesuan jarrita zeuzkan itxaropenak?.

Madrilgo gertaerak baino egun batzuk lehenago, Huelvako espetxean Lurdesekin izandako bisita bukatu eta gero, espetxeko pasabideetan gindoa zela, galdera hau luzatu nion gu zaintzen zetorren kartzelako funtzionarioari: nola ari zarete bizitzen suetena?. Pasabidea luzea da oso, eta denbora ematen du bai galdera, bai erantzuna ondo pentsatzeko. Beran erantzuna honako hau izan zen: „lasaiago gaude, politikoei bideratu beharko lukete arazoa, ni irrikatzen nago%.

Anekdotak hutsa izan liteke funtzionarioak emandako erantzuna. Hala ere, gutxiengo baten ametsak besterik ez direla eta ez dagoela zer eginik esaten dutenen aurrean baikor izan nahi dut.

Bada psikologia sozialean ikasgai bat, non gutxiengoan portaerak aztertzen diren. Gutxiengoan eraginkortasuna

aztertzen denean, bi izan litezke jokabideak; lehena, gutxiengoa denez, aintzakotzat ez hartzea, horrek dakarren ondorio guztiekin, hainbat aldiz probatua izan dena ezker abertzalearekin. Bigarrena, negoziatioaren bidea hartuz, zer esaten duen kontuan hartzea, kasu honetan autodeterminazio eskubidea errespetatzea.

Autodeterminazioa ardatzat hartuz, Euskal Herriak bizi irauteko eskubideaz sinesten dugunok badugu non metatu indarrak.

Bittor Trebiño

Baina ze pasatu da Plaza Barrixan?!

Ze pasatu da Plaza Barrixan? Obraren bat egiteko kenduko zeben eta berriro ipiniko dabe... ez ba! Ranpa bat ein biha dabe eta betirako desgertuko da danok ezagutu dogun petril hori?! Eta eskailera horrek! Baina zela, zeinek erabaki dau ranpa bat egiteko dana kentzia? Onduan aldapia zeta daka orduan? Halako leku inportantia izanda... martxa honetan ez dogu Plaentxia ezagutuko eta nahiko arraro sentitzen hasiko gara. Aurrerapenak bai baina kontuz, joe!

D.U.

Pintaden inguruko kexa

Pil-pileanen dei bat jaso dugu etxeko fatxadetan egiten dituzten pintaden inguruan: " Ez dago eskubiderik hemen pasatzen dana, gabetan pintatzen daben moduan kalietan, etxietan. Ez dago eskubiderik ipini eta ipini, eguna juan eta eguna etorri".



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lehiaketak

- **Kartel Lehiaketa**
Erandioko Udala. Erandioko 2007ko inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa. Partaideko gehienez bi lan.
Saria: 1.500 euro
Epea: 2007-01-13
Tel.: 94 4890100
emaila: alkatetza@erandioko-udala.net

Ikastaroak

- **Gipuzkoako Arte Elkarteen Tailerrak**
Gipuzkoako Artisten Elkartea. Grabatuak, pinturak, oinarriko marrazketa, modelatze-tailerra, erretratua... aldi baterako tailerrak eta iraunkorrak.
Iraupena: 2006ko urritik 2007ko ekainera
Epea: : 2007-06-30
Tfnoa: 943 473837
emaila: asarteg@telefonica.net

OHARRAK

PIL-OPARIAK EROSTEKO

Pil-pileanen kamisetak, motxilak, autoko pegatinak, amantalak, tangak... erosi nahi badituzu, jarri elkartearekin kontaktuan telefonoz edo imeil bidez.

KZGUNeko ORDUTEGIA

Urtarrilean KZgunea zabalik egongo da martitzenetan, 9:00etatik 13:00etara.

Jaiotakoak

- ENEKO GOENAGA GALARRAGA
- VANESA REY CAMISÓN

Hildakoak

- EUSEBIA EGIAZU LEZETA
- MARIA ANTONIA ISASTI URANGA
- TERESA HERNANDEZ SERNA
- BENANCIA ALBERDI GISASOLA

Urtea hastearekin batera, politika gaxa pil-pilean jarri da Euskal Herrian. Azken asteetako gertakariak zer esana eman dute bake-prozesuari dagokionez.

Egingo al dau aurrera bake-prozesuak?



Javier Revuelta
39 urte
langilia

Oin nahiko konplikauta egon arren, aukera asko dabe. Gobernuak egin bihar dau zeoze lehenbailehen, hala be guk gehixago urten biharko ginuke kalera.



Mertxe Arenaza
46 urte
etxeoandria

Esperantzia behintzat badaukat. Nik uste dot, garen egoeran lasaittasunak eta objektibidadiak lagunduko leukela. Herritarrok politikuak xaxatu bihar doguz, geldi egotiak ez dau merezi eta.



Byron Arce
17 urte
ikaslia

Entzun dotenakin, nere dudak dittut aurrera egingo ete daben. Euskal herritarrak emon dabe pausua, baina bestien aldetik ez dot aurrerapenik ikusten.




Ainhoa Zubizarreta
25 urte
langabetua

Gauzak daren moduan egonda, zaila dago. Estatu espainolak bere aldetik gehixago jarri biharra daka. Herritarrok botua emotiaz gain, gehixago egin geinke eta hortarako indarra lortu bihar dogu, gure erabakixak hartu ahal izateko.



Lourdes Ezkibel
61 urte
erresidentziako langilia

Nik baietz uste dot, erreza ez daguan arren. Danon artian aurrera jun bihar dogu. Gobernu espainolak hitzetatik ekintzetara pasatu biharko litzake, baita hemengo gobernuak be.



Carlos Maridueña
38 urte
igeltserua

Entzun dotenez, nahiko estankauta eta zail dago egoeria. Egoera honetan egotian errua batak bestiari botatzen dotsa, eta hola ezer gutxi egin geinke, danok sakrifikatu bihar gara honekin amaitzeko.



Lakuesta
Optika 

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Plaza Barrixak zati bat gutxiago

2 ranpa luze egingo dituzte Plaza Barrixan, berezko egiturari zati bat kenduta. Izartu II programako Kalebarren eta Santa Ana kaleen urbanizazio lanen barruan egiten ari diren obra da. Ranpak bi aldapa

izango ditu, lehenengo alde batera eta gero bestera, irisgarritasuna (akzesibilitatea) hobetzeko helburuarekin. Plaza Barrixa 1831an eraikitakoa da eta garrantzia historikoa dauka herriarentzat.



Baso autoktonoak berreskuratzeko programa martxan da



Herriko hiru zuhaitziren jabeek hitzarmena sinatu dute Udalarekin, baso autoktonoak berreskuratzeko helburua duen "Soraluze Baso Bidez" programaren bitartez. Orain arte sasiz garbitu dituzte jabe hauen lursailak eta datozen hilabeteotan

espezie autoktonoen (pago, haritz, urki...) landaketak egingo dituzte. Hitzarmenaren bidez, zuhaitz multzoen kudeaketa arautuko dute eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik laguntzak eta subentzioak jasoko dituzte.

Lapurretak gabonetan Batzokian

Gabon egunetan lapurretan egi-tera sartu ziren Batzokian. Udatik hona bi bider sartu dira tabernara; lehenengoan dirua eraman zuten, eta oraingoan dena hankaz gora utzi zuten arren ez zuten ezer eraman, alarmak jo zuen eta. Azken hilabeteotan Auresku tabernan eta Justoren bodegan ere egin dute lapurretan eta beste saltoki batzuetan ere saiatu dira.

Kale mozketa erdigunean

Herriaren erdigunean kalea moztuta dago. Zubi Nagusitik Udalaxe ondoko aldaparako sarbi-dea, eta alderantziz, itxita egongo da bertan egiten ari diren lanak bukatu arte. Santa Ana eta Kalebarrengo lanei dagokizkien obrak dira.

Autobusen auzia luzerako

Debegesako Juan Angel Balbas gerenteak emandako informazioaren arabera, oraindik ez dute akordiorik lortu autobusen kontuarekin. Juan Angelen hitzetan, "Debabarreneko herrien proposamena eta Aldundiarena ez datoz bat, eta modelo berri bat aztertzen ari dira. Faktore ekonomikoena berraztertze eskatu diegu PESA eta Euskotreni, ez gaudelako ados aurkeztutakoarekin. Negoziazioak luze joko du."

EAKo zerrendak

EAK bere zerrendetan joango diren herritarrak aurkeztuko ditu zapatu goizean Ezozki auzoko plazan. Goizeko 11etan emango dio hasiera ekitaldiari.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Joan den urtarrilaren 4ean ospatu zen Udal Batzarrean EAJ(5)-EA(1) koalizioaren botoekin gehiengoz onartu dira aurtengo urteko aurrekontuak, oposizioko SAH (3), PSE (1) eta PP (1)ren aurkako botoekin.

Oposizioko hiru alderdiek adierazi zuten ez dela partaidetza eta adostasunik izan aurrekontuak egiterako orduan.

2007rako aurrekontuak 4.229.351 eurokoak izango dira, joan zen urtekoa baino 452.074 euro gehiago.



2007ko aurrekontuak onartuta, adostasunik gabe

%10,68eko igoera

Iazkoaren aldean, 452.074 euro gehiagokoak dira aurrekontuak, %10,68ko igoera izan dutelako. Sarrera nagusiak transferentzia arruntak (2.469.231 euro) izango dira. Sarrera patrimoniala (15.000 euro) %58an igoko da aurreko urtearekiko, eta inbertsioen salmenta (300.000 euro) %100ean. Eraikuntzako edo zeharkako zergetan (110.000 euro) 67.472 euro gutxiago sartuko dira aurtun.

Gastuei dagokienean, pertsonalekoa (1.299.869 euro) da gastu nagusia, %7ko igoerarekin. Inbertsioak (812.429 euro) %15 baxuagoak dira eta mailegu gastuek (285.419 euro) %3ko jeitsiera izan dute.

Aurrekontuetatik kanpoko proiektuak

Foru Aldundiak zenbait proiekturen inbertsioa egingo du aurtun. Urkulutik Eibarrerako ur trasba-

“Azpiegiturei dagozkien proiektuak dira aurrekontuan pisu handiena dutenak”

searen lanak hasita daude (Baltegietan egiten ari direnak) eta horiek bukatzea izango da bat. Joan zen urtean berrikuntza zirenak aurtun hasi gabe daude oraindik: Kiroldegiko gaineko proiektua (aurkeztuta dago) eta Sagar-Errekako boladizoa (bidearen zabaltzea). Parrokiako eta

Zaharren egoitzako eraberritzeak burutzeko ere dirulaguntzak emango ditu.

Proiektu nagusiak: Izartu II eta zinea

Azpiegiturei dagozkien proiektuak dira aurrekontuan pisu handiena dutenak. Izartu II programaren barruan, Santa Ana eta Kalebarreneko urbanizazio lanak bukatuko dituzte urte honetan eta horren ostean, Zubi Nagusia eta Plaza Zaharra eraberritzeko obrekina hasiko dira.

Zinearen zaharberritze lanak 2007an egitea aurrirakusten du Udalak. Aurrekontuetan sartzen ez bada ere, aurreko urteetan proiektu honetarako izandako inkorporazioak erabiliko dituzte. 335.665 euroko balioko du.

GOBERNU BATZORDEA (EAJ – EA):


“Nobedade ugari ditu”

Alde guztietatik entzuten dugu zementuaren legealdia dela, baina Izartuko jardueretatik zein ez da egokia izan? Horrelako aukerak ezin dira galdu. Inork ez badu herriaren goitik beherako aldaketarik ikusten, bere arazoa da. Aurtengo aurrekontuak nobedade ugari ditu: Auzolan programa, larrialdietarako etxebizitza, kiroldegiko aldagelen eta zinearen berritzea, eta beste asko. Erregetxearekin apustu garbia egin dugu.

SAH:

“Ez da parte hartzerik egon”

Zehaztasun eta prespektiba gabeak dira. EAJ-Earen aurrekontuak, EAJ-Earentzat eginak. Aurrekontuok ez onartzeko arrazoi potoloena da partehartze eza da, ez herritarrena ez eta gainontzeko talde politikoena ere. Faltan daude etxebizitza egoeraren azterketa, %0,7 nazioartea laguntzeko Euskal Fondoaren bitartez, Emakumeentzako Aholku Batzardea, Kultur Etxea, Eguneko Zentroa, Gazte Txokoa... urterokoak.



Hirigintza: Plaza Zaharra eta Zubi Nagusiko zaharberritze lanak

ERREGETXEAREN SALMENTA

Udalak Erregetxeko 15.000 m³ dituen lur-azpia salduko du 300.000 euroko prezioan. Dagoeneko 3 jarduera burutu dituzte: lur azpiko balorazioa, azterketa topografikoa eta ondasun publikoaren kalifikazioaren aldaketa ondasun (patrimonio) ondare izatera. Hurrengo pausoa baldintza-plegua ateratzea izango da. Oposizioak dio lurzoru publikoa promotore pribatu bati saltzea ez duela onartuko.

Batzordeka begiratu, Hirigintza da aurrekontuen zatirik handiena hartzen duena, 561.767 euro, iaz baino 95.802 euro gehiagorekin. Batzorde honetako egitasmoak Izartu II programako lanak dira: Zubi Nagusiaren eta Plaza

Zaharraren urbanizazioa. Kasko historikoaren peatonalizazioa eta irisgarritasuna lortzea du helburu. Programa honek Eusko Jaurlaritzaren aldetik %75eko dirulaguntza jasotzen jarraituko du, BEZ-a barne.



PSE:

“Obra txikiak partidarik gabe daude”


Ezezkoa eman dugu, gure lehenasunekin bat ez datorrelako. Obra handiak egiten ari dira baina asko daude ikusten ez direnak eta beharrezkoak, Gipuzkoako etorbideko edo estazioko eskailerak, adibidez. Aurten ere ez dute beste alderdiekin kontatu, iritzia bakarrik galdetzen digute. Ez ditugu onartzen preso senideei eta Udalbideri dirulaguntza ematea, ezta Herri Urrats eta Nafarroa Oinezi ere.

PP:


“Ez dira herritarren benetako eskaerak kontuan hartzen”

Boto negatiboa eman dugu lehenik, aurrekontuak betikoak direlako, irizpiderik gabeak eta epe motzera begiratzen dutenak; bigarrenik, erakunde publiko handiagoei baliabideak handitzea eskatu beharko liekeelako Udalak; azkenik, preso senideei eta Udalbide eta Eudeli ematen zaizkien laguntzarekin ados ez gaudelako. Gainera ez dio etxebizitzaren arazoari eta beste askori aurre egiten.


Aurrekontuak batzordeka




Kultur programazioak 9.000 euro gutxiago izango ditu eta Santa Ana eta Andra Mari jaiek 8.000 euro gehiago. Zinearen zaharberrituko da eta Kultur etxea datorren legealdirako utzi dute.




Arrizabalagako euspen hormak aurreko urtearekiko igoera baino gehiago hartzen du. (SAHk kritikatu du autopistarako lanetan kamioien garaioak sortutakoa dela lurzorua desplazamendua)




Berbalagun egitasmoa eta enprestan euskara planak bultzatzea dira berrikuntza nagusiak.




Inbertsio nagusia institutuko beharizanei aurre egiteko erabiliko da.



Agenda 21eko ekintzez gain, EVEk kirodegiko eko-generadorearen gaineko azterketa bat egingo du.



Igerilekuko ekipamentua eta aldagelen zaharberritzea burutuko dira 2007an, nahiz eta aurrekontuan sartuta ez egon.



Gizarte Larrialdietarako Laguntzak dauka zatirik handiena. Berrikuntzen artean, Auzolan programa dago, baztertutako bizilagunak lan munduan integratzeko.



EGUNKARIA ETXERA ERAMATEN DIZUGU GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4 20590 SORALUZE tlf: 943 75 13 20



Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

Soraluzetarrak Azpeitiko tanborradan gonbidatuak

Hilaren 13an Azpeitiko tanborradaren 50. Urteurreneko ospakizunetan 10 soraluzetarrek parte hartuko dute. Azpeitiko antolatzaileek Gipuzkoan tanborrada ospatzen duten herri guztiak gonbidatu dituzte jaialdian parte hartzera. Denak batera hainbat pieza joko dituzte.



Umeentzat zinea urtarrilean

Atxolin Guraso Elkarteak antolatuta, filmeak botako dituzte igandetan kapillan, urtarrilean eta otsailean. Igandetan arratsaldeko 5etan izango dira.

- Urtarrilak 14: Spirit
- Urtarrilak 21: Glup
- Urtarrilak 28: Tintin – Tor nasol arazoak

Mendaroko literatur-lehiaketako irabazleak

Mendaroko Gabonetako XI. Literatur Lehiaketa irabazi dute Josune Egaña eta Maite Kintanillak, joan zen urtean bezela. 16 eta 18 urtekoen mailan hartu zuten parte. 53 partaidetatik, Josunek 1. postuagatik 250 euroko saria lortu zuen, eta Maitek bigarren lekuagatik 160 eurokoa.



Dantza Taldearen 50. urteurreneko ensaioa

Urtarrilaren 19an izango da Urrats Dantza Taldearen 50. urteurreneko ospakizunetarako ensaioa, arratsaldeko 19etan goiko eskoletan. Dagoeneko 70 bat lagun azaldu dira azken ensaiotara eta taldeetan dantzak gogoratzen dihardute. Dantzariak eramandako argazki zaharren bilketarekin jarraitzen dute.

“Darling Shoes” Deban

“Darling Shoes” musika talde soraluzetarrak Debako Gaztetxean joko du hilaren 20an iluntzean. Beste 3 talderekin batera, Rock and roll kontzertua eskeinituko dute.

Umeez egindako pintura erakusketa

Pintura eskolak erakusketa jarri du kiroldegian ikasleek egindako lanekin. Datorren hilaren 13ra arte egongo dira artelanak ikusgai kiroldegiko era-

kusketa gelan. Astelehenetik barixakura 19etatik 20:30etara eta zapatutan 12etatik 13:30etara.



Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Telefona 75 24 09

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK


Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Laskurain, binakako txapelketatik kanpo

Aritz Laskurain pilotariak Gabonetako torneoaren irabazle zela irabazi zuen Irujo bikotearekin batera. Hilaren 27an Chafee eta Pascualen aurka irabazi ostean, Bergarako frontoian finala jokatu zuten Titin III eta Barriolaren kontra. 12 eta 13 zihozela, Titinek buruan kolpea hartu eta partidua bertan behera geratu zen. Garaipena Irujo eta Laskurainentzat izan zen.

Urte bukaerako kirol prentsak Laskuraini buruzko aipamenetan pilotariaren jokoa goraiatu eta txalotu zuten. Binakako txapelketarako hautagai beharko lukeela ere esan eta idatzi zuten kirol adituek. Aspe enpresak, ordea, beste pilotari batzuk aukeratu ditu txapelketa jokatzeke eta Aritz kanpoan geratu da, Abel Barriolari gertatu zaion moduan.



San Silvestre egunean, krossa eta mendia

25 lagun inguru batu ziren San Silvestre krossaren 3. Edizio honetan. Herri erdialdean 3 edo 4 km-ko ibilbidea egin zuten lagun artean, leharrik gabe. Memorial Atxa krossaren erreibindikazio moduan hasi zenak, urtetik urtera partaidetza

haundiagoa dauka. Gero eta ohitura handiagoa dago mendi tontorrean txanpainarekin topa eginez urte zaharrari lagun artean bukaera ematea. Karakate eta Irukurutzeta aldean, jendetza batu zen goiz osoan zehar.



EMAITZAK

ESKU PILOTA

Abenduan 22tik urtarrilaren 11ra

- Irujo - Laskurain 22
Chaffe - Pascual 20
- Irujo - Laskurain 12
Titin III - Barriola 13
(Partidua bertan behera geratu zen, eta Irujo - Laskurainek irabazi zuten)
- Capellan - Laskurain 21
Berasaluze IX - Barriola 22
- DV torneooko txapelkun da Aitor Atxotegi
Atxotegi - Loiola 22
Behobide - Uzkudun 20
- Atxotegi - Irureta 15
Alvaro - Merino 22

FUTBOLA

- Eibartarrak 0 - Sora 8 (Erreg.)
- Sora 0 - Hernani 6 (Jub.)
Jubenilak igotera fasean daude.

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua 13, 15:30etan, Ezozin
• Sora - Aretxabaleta (Erreg.)

Zapatua 13, 19:30etan, Berion (Donostia)
• Luberrri - Sora (jub.)

PILOTA

Zapatua 13, 19:00etan, Gernikan
• Errozenea - Jauregi
Gernikako bikotea

Laskurainek eta Atxotegik ez dute jokatuko astebukaera honetan.

MENDATA taberna

- Pizzak
- Bokadilloak
- Sukaldetik zure etxera!!
- Kazuelitak
- Razioak

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87

ARMENDIA JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Sorluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Gabonak argazkitan


Gabonak argazkitan



1 Musika Eskolaren kontzertu jendetsua karpan



2 Olentzero eta Mari Domingi, umeen eskaerak entzutera menditik etorriak



3 umeek izan dute zertaz gozatu, haur parkea, karaokea, antzerkia, ipuin kontalariak...



4 Pil-pileanen X.urteurreneko ospakizunak bizi-bizi!



5 Trakatan trakatan... zaldi gainean 3 errege magoak! Umeen ilusioak pizten



6 Gaztetxeko jardunaldi kulturean kontzertuak, hitzaldiak, bigarren eskuko azoka...



7 Kontrargiko rallya: 1. Mikel Zengotita 2.Roberto Madariaga 3. Iñigo Korta Herriko onena: Mikel Valero



8 Herriko saltoki eta tabernak gabon itxuran apainduta



Argazki zaharra



Iturria: Elisabeth Taapken

Kainoi fabrikako neskak

1946xan etaratako argazkixa da, kanoi fabrika ostian daren zelaixetan. Emakume gaztiak izan arren be, bazeken indarra eta lanerako gogua kainoi fabrikari jarduteko.

Ezkerretik eskumara: Mari Karmen Larrañaga, Elisabeth Taapken eta Maria Dolores Garate.

Lehiaketa

Pulpito zaharra...



Aurreko aleko erantzuna

Ezkerreko aldiaren zeguan, aldarera begira jarri ezkerreko. Egurrezkua zan eta aldamenian, aldarian, egurrezko barandilia be bazeuan. Aldarian obrak egin zianian kendu zebe. Bazeken indarra sermoiak orduan.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Plaza Barrixak gerra ostian ze izen zekan?

- Plaza de los fueros
- Plaza del Tercio de Montejurra
- Plaza de Toros

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04 ra** edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

Gogortuz
Fisioterapia zentrua
Oier Oregi Unamuno
943 75 00 22
Santa Ana kalea 7 Sorraluze Gipuzkoa

SARIA →

Fisioterapia saio bat Gogortuz zentroan

AURREKO ALEKO IRABAZLEA
Ez zen parte hartzailerik izan.



Diseinua eta Sormera

Polígono Amillage, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789